

ARNAS BERRIA EUSKARARENTZAT

LAU HAIZETARA EUSKALDUNON ELKARTEA: EUSKALGINTZAREN ERAGILEA

Mikel Azkarate

LAU HAIZETARA herriko elkarte bat da, eta bere egitekoa herriko pentsaera desberdineko euskaldunak bere inguruan elkartuz euskararen aldeko dinamika sozial berria sortzea da.

LAU HAIZETARA elkartearen sorreraz geroztik kezka nagusi bat izan da gure artean: nola indartu herrian euskararen aldeko dinamika soziala, pertsonak eta taldeek osatua, gizartearen euskaraz bizitzeko benetako aukerak areagotzeko.

Izan ere, herritarrok noizbait euskaraz biziko bagara hiru zirkunstantziak gertatu behar dute aldi berean: a) pertsonengan, familiengan eta gizarte giro eta alor desberdinetan euskaraz egitea zerbait naturala, gustukoa eta onartua izatea (euskararen aldeko jarrera); b) euskaraz ongi hitz egiten duen gutxieneko euskaldun kopurua osatzea (euskararen ezagutza); eta c) benetan euskaraz egiten duen ingurune pertsonal eta sozialak egotea: eskola, familia, lagunartea, kirola, kultura, komunikabideak, lan mundua... (euskararen erabilera). LAU HAIZETARAK, euskalgintzaren beste elkarteekin batera, baldintza horiek sortu eta areagotzeko dinamika soziala bultzatu nahi du.

Gainera, euskaratik urrun dauden pertsonak eta giza taldeak euskararengana erakarri eta haiengana hurbildu behar da euskara, aldeko jarrerak sortuz, protagonismoa emanaz eta konpromisua lortuz (euskal eredueta matrikulazioa, adibidez).

Kultur talde bat baino zerbait gehiago izan nahian, euskararen aldeko giza multzoa osatu eta abian jartzeko sortu da gure elkarte. Horrek berarekin dakar pertsonekin eta beste talde sozialekin etengabe harremanetan egotea, gizarte sare oso bat sortzea eta euskaldunei euskararen aldeko lan atsegina eta eraikitzailean toki bat eskaintzea.

LAU HAIZETARA elkartearen berriazko izaerak, hau da, euskara elkarte bat izateak herriko euskararen egoera orokorrari erantzuteko elkarte egokia bihurtzen du hizkuntz normalizazioaren aldeko saio berri bati begira. Hona hemen, gure ustez, horren arrazoiak:

a) Gure elkartearen izateko arrazoiak ez da, bakarrik, eginkizun partikular batzuk betetzea, baizik eta euskalgintzaren helburu orokorra gauzatea: euskararen mundua trinkotzea eta udalerrian euskararen normalizazio soziala lortzea.

b) Euskal hiztuna (euskalduna), eta ez bakarrik euskararen militantea, euskalgintzaren sujetu aktibo eta partaide bihurtzea.

c) Euskalgintzari (euskararen aldeko beste talde eta entitatei, alegia) eta herrigintzari estu lotuta egotea.

d) Herrigintza eta euskalgintzako talde desberdinetako pertsonak bere barruan hartzea, pentsaera desberdineko pertsonak LAU HAIZETARA osatuz.

e) Elkartearen ekimen propioez gain, bestelako talde, organismo eta esparru sozialen barruan ere (eskola, aisialdia, gazteria) hizkuntz normalizazioaren aldeko proposamenak eskaintzea.

f) Euskalgintzaren ondare historikoa jasotzea, euskalgintzaren beste entitate batzuekin batera, Iñaki Arruti euskaltzaleak euskara elkartei buruz *Bat* soziolinguistika aldizkarian (1995eko urria, 16 zenbakia) adierazitakoaren arabera.

Bere izateko arrazoiak eta estiloa hizkuntz komunitatetik eta euskalgintzatik hartu dituzenez, LAU HAIZETARA elkarteak esperientzia asoziatibo sendoa eskaini ahal die eta behar



LAU HAIZETARA aldizkaria

die herriko euskaldunei. Esperientzia horrek eraman behar gaitu gizarte giroetan eta esparruetan pertsonak elkartu eta proposamen normalizatzaileak bultzatzera. Zentzu horretan, hizkuntz komunitate osoari lotutako ekintza proposamenak eskaini ditzake elkarteak.

Pertsonen arteko harremanak ere garatzen ditu elkarteak, eta talde, elkarte eta organismo desberdinen sare soziala sortu eta eskaini behar du. LAU HAIZETARAK herritarren korresponsabilitate eta partaidetza guneen funtzionamendua bultzatuko du, egitura horiek ere hizkuntz komunitatearen adierazpidea izanik.

Gauzak horrela, sei urte hauetan zertan asmatu dugun eta zertan hutsegini dugun aztertu ondoren, aurrerapausoak ematera goaz. Aldi berean, atzerako begirada hori elkarteak zer den eta zertarako den barneratzeko baliagarria izatea nahi dugu. Zentzu horretan, jarraian elkartearen kezka nagusiak aurkeztuko ditugu. Izan ere, horiei ematen zaien erantzunari lotuta baitago gure helburua betetzea.

1. ELKARTEAREN EGITASMOA

Hemendik aurrera itxaropenez bizi nahi dugun bide honetan, behar-beharrezkoak izango dira **ilusioa** sortzea eta jendearen ilusio hori bideratuko duten **antolamendua eta lanerako plangintza** eskaintzea, bai eta euskararen alde jarduten diren talde, entitate eta erakundeen artean **elkarlanean** aritzea ere. Zentzu horretan, Egitasmoaren bitartez ilusio hori transmititu nahi diegu herriko euskaldunei, eta aldi berean partaidetza bide batzuk eskaini ere bai, gizartearen dagokien eginkizuna protagonismoz bizi dezaten:



Lau Haizetara aldizkaria

TXIRRITA BASERRIA

ALORRAK

Komunikazioa

Sentsibilizazioa

Kultura

Aisialdia eta gazteak

Barne dinamizazioa

PARTAIDETZA GUNEAK

- Lau Haizetara aldizkaria
- Kolaborazioa Oarsoaldeko Euskara Batzordearekin
- Euskal deituren euskal grafia ofizialtzea
- Madalen jaiak euskaraz girotzea
- Euskararen erabilera zenbait alorretan
- Euskararen beharrak antzematea
- Proposamenak Udalaren hizkuntz politikari
- Kolaborazioa euskalgintzaren beste entitateekin
- Xenpelar kultur astea
- Xenpelar bertso eskola: bertsolaritza ikastaroa
- Bertso saioak: Santa Ageda, Urte Zaharra, Santiago eguna
- "Zapirain Anaiak", bertsopaper lehiaketa
- Bertsozaleen omenaldiak
- Herriko jaiak girotzea
- Ttakalo ludoteka
- Ikastetxeetako euskara taldeak
- Haur eta gazteen aisialdi eskaintza
- Gazteen motibazio saioak eta bertso afariak
- Zuzendaritza Batzordea
- Ekonomia lantaldea: diru iturri berriak bilatzea
- Egoitza lantaldea: herrigunean egoitza lortzea



2. ELKARTEA GIZARTERATZEA

Horri lotuta, LAU HAIZETARA elkarte **gizarteratzeko kanpaina** abian jarriko dugu datorren urrian, elkartearen mezua jendearengana hobeto helarazteko eta bazkide gehiago gugana hurbiltzeko. Izan ere, zenbat eta euskaldun gehiagok parte hartu honelako proiektu batean, gero eta eragin indar handiagoa izango du euskararenganako motibazioan eta euskararen normalizazio sozialean.

3. BARNE ANTOLAMENDUA

Elkartearen eguneroko martxa errazteko, garrantzitsua iruditu zaigu barruko antolamendua arintzea eta barruko lana erakargarriago bihurtzea. Zentzu horretan, barruko talde desberdinen artean nori zer dagokion hobeto argitu dugu, eta lantaldeen koordinazioa areagotu da, egitasmo bateratuari indar handiagoa ematearren.

Era berean, oso garrantzitsua da LAU HAIZETARA n dihardugunok elkar ondo ezagutzea eta pertsonen artean ahalik eta sinergia handiena sortzea, elkarrekin eraiki nahi den proiektu batean behar den ilusioaz lan egiteko.

4. ELKARTEAREN EGOITZA ERDIALDEAN

Gaur egun elkartean eta bere inguruan ari diren lagunak herrigunean jarduten dira gehienbat. Horregatik, erdialdean egoitza ez izatea oztopo nabarmena da LAU HAIZETARArentzat. Azken finean, herriko euskaldunontzat erreferentzia bihurtu nahi badugu, ezinbestekoa zaigu gaur egun erdialdeko egoitza haiengana hurbiltzeko. Dena den, egun Udalak utzitako Migel Irastortza parbularioaren goialdean dugun egoitzak balio osoa izango du herriko goi auzoetan euskararen inguruko lana egiteari begira.

5. DIRU ITURRI BERRIAK

LAU HAIZETARA elkartearen zabalasuna bermatu nahi bada, pentsaera desberdineko jendea biltzarekin batera, diru iturrietan autonomia izan behar dugu. Horrek esan nahi du dirulaguntza publikoaren eta gure dirusarrera propioen artean oreka egon behar duela. Gaur egun, gure diru iturri propioen sarrera nagusiak bazkideen kuotetatik datoz. Dena den, gaur egun horiek ez dira nahikoak eta bestelako dirusarrerak bilatu behar ditugu, edozein herri mugimenduk behar ohi duen moduan, gure autonomia ziurtatu nahi badugu.

AMAIERA

Gure ustez, aukera berriak agertzen zaizkigu herrian euskararen aldeko dinamika sendoagoa sortzeko. Alde bateatik, ez da ahaztu behar herri honek betidanik jakin duela herritarren, kulturaren eta euskararen alde lan egiteko pertsona gogotsuak ematen. Beste aldetik, gure artean sumatzen hasia den giro soziopolitiko berriarekin batera, hilabeteotan euskararen aldeko mugimenduaren barruan bizi izan eta biziko diren gertakariak (*Bai Euskarari* kanpaina, *Korrika 11*, 1999ko *Kilometroak*) herritarren partaidetza eta gogo handiagoen eragingarriak izango dira, zalantzarik gabe.

LAU HAIZETARA elkarteko giza talde osoaren asmoa, orain arteko esperientziak eta etengabeko hausnarketaz gogoherrituta, pentsaera desberdineko pertsonak eta gure ilusio osoa norabide horretan jartzea da, elkarte herriko euskaldunentzat bilgune eroso eta euskararen aldeko dinamikaren eraikitzaile izan dadin. Izan ere, LAU HAIZETARA herrigintzaren zatia ere bada, herriaren etorkizunarekin konprometitutako pertsonak barne hartu eta horietako asko konpromisu horretan hezitzen dituen neurrian.